



Gastronomia Vasca

Un viaje a través de los sabores

Sagardotegiak ezagutzeko aukera Donostia Turismoaren eskutik por Gastronomía Vasca

Archivado en: [Eventos](#), [Productos](#)



Sagardotegiak ez dira jatetxe hutsak. Horietan, bakailao kazola eder baten inguruan, txuletoia, gazta, irasagarra eta intxaurrak eta “txotx!” oihuari jarraikiz zuzenean kupeletik hartutako sagardo goxoa dituela, bisitariak kultura gipuzkoarraren nortasunaren atal bat ezagutzeko aukera izango du.

Donostia Turismoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiak irtenalditxo gastronomiko hau atera dute, turistei gure kulturaren aitzindaria den berezikeri gastronomiko honek eskaintzen duen esperientziara gerturatu eta ezagutarazteko helburuarekin. Sagardo irtenalditxo honetan, sagardoaren historia eta sagardotegiaren jatorria ezagutzeaz gain, bisitariak txotx!-aren erritu kuttunean parte hartu eta sagardo produktu sorta bat eraman ahal izango dute etxera.

Irtenalditxoaren barne:

2 gaueko ostatua eta gosaria
Bisita gidatua ‘Sagardoetxea’ Sagardo Museora
Bazkaria edo afaria sagardotegi batean
Produktu sorta: sagardoa, muztioa eta sagar-ozpina
Doako estrak: San Sebastián Card txartel turistikoa (astelehenetik ostiralera egindako erreserbetarako) “Donostia Funtsezkoa” bisita gidatua (asteburuetako erreserbetarako) eta Welcome Pack-a, turismo-informazioarekin.

Prezioa: 90 €tik aurrera

Informazio gehiago: www.sansebastianreservas.com

COMPARTIR   

Martes, 20 Marzo, 2012 - 13:34 pm

Escribe un comentario

Nombre*